

Gizon indartsuen lurraldea da Burunda. Azkeneko **jentilak** ere bertan bizi omen ziren. Altsasuko Hartza ahizpek kontatutako ipuin honetan, ordea, ikusiko dugu gizonak ez ezik emakume indartsuak ere bazirela Nafarroako eskualde honetan.

EMAKUME INDARTSUA



Orain dela urte asko Altsasu herri txiki bat zenean gertatu omen zen istorio hau. Garai hartan herriko etxe guztiei jartzen zitzaien izena. Gaur egun ere, herri txikietan batik bat etxeek izena izaten dute: Josenea, Arotzarena, Iturrikoa, Matsanea, Berrizaun... eta beste hainbat eta hainbat. Etxe horietan bizi zirenek etxearena hartzen zuten: Martin Iturrikoa, Joanes Goikoetxekoa, Pelloneko Joxe.... Gure ipuineko etxeak ere izena zuen, noski, eta bertan bizi ziren anai-arrebek izen hori hartzen zuten.

Altsasuko herriaren bazter batean zegoen "Hamalau" deitzen zuten etxea. Ahal handiko **indardun** bat bizi omen zen bertan bere arrebarekin.

Giza neurritz kanpoko indardun haien **ospea** bazter guztietara zabaldu zen, dirudienez, eta halako batean, arreba Zangitun **goldean** ari zela, gizon arrotz bat agertu eta:

- "Hamalau" non bizi da?- Galdetu zion.

Emakume hark goldea lurrean sartuta idiak geldiarazi, esku batekin idiak bere goldearekin jaso, eta beste eskuarekin etxea erakutsiz, hitz bakar batekin erantzun omen zion:

- Han!



HIZTEGIA

Jentila:

Antzinako gizon handi eta indartsua.

Indarduna:

Indar handikoa.

Ospea:

Fama.

Goldea:

Lurrari buelta emateko makina.

Gizon indardunaren famak zioena benetan hala zen ikustera etorria zen bisitaria, baina emakumearen ahalmen hura ikusita txundituta gelditu omen zen esanez:

- Arrebak halako indarra baldin badu, zer izango da delako "Hamalau" hori?

Eta besterik gabe buelta hartu eta "Hamalau" ikusi gabe joan omen zen gure gizona etorri zen bidetik.

- Zoaz nondik zetorren jakitera!

EMAKUMEAK IDIEKIN GOLDEAN



Mattin Mottela. Sakanako Ipuinak. Jose Maria Satrustegiren liburutik moldatua.

1. Non bizi omen ziren azkeneko jentilak?

- A. Sakanan.
- B. Burundan.
- C. Altsasun.
- D. Nafarroan.

2. Noiz gertatu zen kontatzen zaigun istorioa?

- A. Orain dela urte gutxi.
- B. Gizon-emakumeak indartsuak zirenean.
- C. Altsasu herri txiki bat zen garaian.
- D. Okerrak dira aurreko hiru aukerak.

3. Nortzuk bizi ziren “Hamalau” etxean?

- A. Altsasuarrak.
- B. Pelloneko Joxe.
- C. Hartza ahizpak.
- D. Anai-arreba indardunak.

4. Non zegoen kokatuta “Hamalau” etxea?

- A. Herri erdian.
- B. Herri bazterrean.
- C. Herritik aldentuta.
- D. Zangitun.

5. Lotu gezi batez ezkerreko eta eskuineko osagaiak ideiak modu zuzenean osatzeko:

ETXEEI	Izena ematen zien bertan bizi zirenei.
ETXEAK	Izena jartzen zitzaien herrietan.
ETXEAREN	Izena “Hamalau” da.

6. Zergatik uste duzu joan zela gizon arrotza Altsasura?

- A. Herria ezagu nahi zuelako
- B. Hamalaurekin bilera bat zuelako.
- C. Kuriositatea zuelako.
- D. **Golde** saltzailea zelako.

7. Zer da zure ustez “arrotza”?

- A. Kanpotarra.
- B. Egurra lantzen duena.
- C. Jateko bat.
- D. Herrikoa.

8. “Ahal handiko indarduna”, nor da?

- A. Isterioko emakumea.
- B. Jentil bat.
- C. Kanpotarra.
- D. “Hamalau” etxeko gizona.

9. Zer esan nahi du “esku batekin idiak bere goldearekin jaso”?

- A. Idiak eta goldea lurrean erorita zeudela eta zutik jarri zituela.
- B. Idiak eta goldea bazterrean utzi zituela.
- C. Idiak eta goldea esku bakarrarekin lurretik altxatu zituela.
- D. Idiak eta goldea elkartu zituela.

10. Testua bi zatitan banatuta dago. Zeintzuk dira zure ustez?

- A. Agurra eta azken agurra
- B. Sarrera eta istorioa
- C. Deskribapena eta konklusioa
- D. Arazoa eta ondorioa

11. Ordena itzazu pasarte hauek istorioaren arabera (1etik 4ra).

“Hamalau”-ren arrebaren indarra ikusi eta joan egin zen.

Burundan jentil indartsuak bizi ziren.

Gizon arrotz bat etorri zen “Hamalau” ezagutzera.

Garai hartan etxeek izena izaten zuten.

12. Ze beste izenburu jarriko zenioke kontakizunari?

- A. Gizon arrotzaren istorioa.
- B. Altsasuko historia.
- C. Hamalau, sardina-bakalau!
- D. Ospea gizonak, ahalmena emakumeak.

13. “Zoaz nondik zetorren jakitera” esaten du amaieran. Zer esan nahi du?

- A. Bazekiela nongoa zen kanpotarra.
- B. Urrutikoa zela kanpotarra.
- C. Kanpotarrak ez zekiela nongoa zen.
- D. Altsasukoa zela kanpotarra.